

ERAIKUNTZAREN KOIUNTURARI BURUZKO INDIZEA (EKI), 2006KO 2. HIRUHILEKOA


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza sektoreak %10,7ko hazkunde nominala izan du 2006ko bigarren hiruhilekoan

Eraikuntza %11,8 hazi da eta Obra Zibila %8,3

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, 2006ko bigarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektoreak %10,7ko hazkunde nominala izan du 2005eko hiruhileko beraren aldean. Urteko lehenengo bi hiruhilekoetan %9,7ko hazkunde nominala izan da.

Estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, 2006ko bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %2,3 hazi da urte bereko lehenengo hiruhilekoaren aldean; horrela, aurreko hiruhileko arteko tasaren aldean azelerazio txikia izan du (%1,2).

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: EUSTAT

Eraikuntzaren sektoreak 2006ko bigarren hiruhilekoan izan duen bilakaerak Obra Zibila baino gehiago izan du euskarri Eraikuntzaren azpisektorea: eraikuntzak %11,8ko urte arteko igoera izan du eta Obra Zibilak %8,3koa.

Hiruhileko artean, sektoreak 2006ko bigarren hiruhilekoan izan duen jardura urte bereko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuz gero, eraikuntzaren azpisektoreak

%3,0ko bilakaera positiboa izan du eta obra zibilaren azpisektoreak hiruhileko arteko %0,6ko bilakaera izan du; nolanahi ere, bi azpisektoreek izan dute azelerazio txikia nahiz eta bakoitzak intentsitate desberdineko azelerazioa izan.

Datu gordinak emanez gero: eraikuntzaren sektoreko enplegua 2006ko bigarren hiruhilekoan %2,26 gehitu da, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta 2006ko lehenengo hiruhilekoaren aldean hiruhilekoen artean %0,9ko hazkundera izan du.

Taula: 2006ko 2. hiruhilekoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	2.hir.06/1.hir.06	At/At-1 (1)	2.hir.06/1.hir.06	1.hir.06/4.hir.05
Produkzioaren indizea	10,7	9,7	2,3	1,2
Eraikuntza	11,8	11,4	3,0	3,3
Obra zibila	8,3	5,7	0,6	-3,7
Landunen indizeak	-	-	0,9	0,2

(1) t urteko urtarritetik azken hiruhilekora arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin alderatuta.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>